



Metatzen zaizkigun eta noiz bota ez dakigun paper zaharrak berreskuratzen (edo, hobeto esanda, garbitzen) ari ginela, CyAren 1982ko komunikazio bat aurkitu dugu (Cya DADaren hastapena izan zen CAPea, CAMeko On Biderekin batera), zeinetan urte hartako CAPeo Lankideen Elkarteko Mus Txapelketan izen eman zuten bikoteak aipatzen ziren.

Ederra altxorra! Batetik, idazteko makina zahar batean egina zegoelako. Eta, bestetik, zerrenda batean, 50 bikote parte-hartzailearen izenak jasotzen zirelako, bai eta beste hainbeste erreserbako jokalarirenak ere. Garai hartan 1.000 langile inguru zituen erakundean, ia 150 pertsonak (plantillaren % 15 inguru) lanetik kanpoko betebeharrak alde batera utzi eta, hilabetez, arratsaldero, kartetan jolasten zuen bere **lankideekin**, garagardo eta kubata artean!!

Berrogei urteko distantziatik ikusita, asko harritzen gaitu ikusteak zirkularra akatserako tarterik uzten ez zuen makina batean idatzi behar genuela (tipexa erabili behar zen, eta dokumentu bat moldatzea odisea ederra zen), eta garai hartako langileek «**denbora libre**a» zutela bularrean CAParen edo CAMaren ezkutua zeraman jaka urdin/griseko lankideekin «**bateratzeko**».

Duela pare bat urtetik, erakunde bakoitzaren barruko Mus Txapelketa horien antzintasuna jakiteko gogoz geunden, ez baitago hemerrotekarik, informazioa biltzeko. Gainera, erakundeetan egindako lehenengo jardueretako bat izango da, agian. Aipatu dugun dokumentua ikusita eta garai hartako «mutikoren» baten oroimenari tiraka, pentsa dezakegu 1982koa ez zela lehenengo Txapelketa izan, eta urtebete edo bi urte lehenago hasiko zirela. Askoz ere lehenago ez.

Horrek guztiak gogoaz berotu digu eta, nahiz eta urtebete inguruko aldea egon daitekeen, **40. urteurrena** ospatuko dugu, urtero-urtero mahai-tapizaren inguruan bildu baikara, 40 puxtarri eta 40 kartarekin eta barre egiteko, gozatzeko, odol txarra egiteko eta edaria jokatzeko gogoz; azken batean, sozializatzeko eta lagun eta lankideekin ondo pasatzeko.

Orain, 1982ko parte-hartzaileen zerrendan, ikus dezakegu oraindik badela tinko jarraitzen duen eta, XXI. mendearen bigarren hamarkadara helduta, maiatza heltzen den bakoitzean, enbido eta hordago artean bere adiskideak engainatzen dituen jendea, gehienak, erretiratuak edo aurretik erretiratuak. Oso gutxi dira oraindik ere Kutxabankeko erlojuetan egunero fitxatzen jarraitzen dutenak.

Halaber, 40 urte hauetan beren jakituria eta konpainia alaiatz umezurtz utzi gaituzten lankide eta lagunak ikusi ditugu zerrendan.

Horiei guztiei, fisikoki daudenei eta gogoan ditugunei, **martxoaren 27an** (ostirala) elkartzeko egingo dugun saioa gogorarazi nahi diegu. Egun horretan, askotariko egoerengatik fisikoki urrundu zaizkigun adiskide zaharrekin elkartuko gara. Halaber, zirrikituren batetik gure partidak zaintzen dauden eta ezkutuan animatzen gaituzten haiek gogoan izango ditugu. Eta, nola ez, gazteak direlako 40 urte hauetan gurekin egon ez direnekin ere ospatuko dugu, gaur egun, Kutxako Lankideen Elkarteko jarduera honen harrobia eta etorkizuna baitira.

Gerora informazio gehiago emango dugun arren, aurreratzen dizuegu ideia elkartzea dela, nola ez, mahai eder baten inguruan, eta bazkaldu ondoren, mus-txapelketa luzea egitea: guztiok 3 partida jokatuko ditugu gutxienez, eta guztiontzako opariak eta sariak egongo dira. Bazkaria 15:00etan hasiko da, egun horretan lanean daudenek ere parte hartu ahal izan dezaten. Egun horretan fitxatu behar ez dugunok lehenago elkartuko gara, elkar agurtu eta geure penei buruz hitz egiteko, kupela baten aurrean eta mokadutxo batekin.

Ekitaldian izena emateko epea luzea da (martxoaren 13a, ostirala), baina eskertuko genizueke lehendik esatea zuen asmoa zein den, eguna heldu arte itxaron gabe, behar den aurrerapenaz antolatzeke aukera izan dezagun. Interesa duzuen guztiek pribatuan jasoko duzue informazio gehiago. Bikotean ematen baduzue izena, primeran; bestela, arazorik ez, "ezkongaiak ezkonduko ditugu" eta.

Interesa izanik, arrazoiren batengatik, deialdia jasoko ez duen norbait ezagutzen baduzue, helarazi iezaiozue, mesedez.

Mesedez, bidali zuen izen-abizenak, helbide elektronikoa eta mugikorraren zenbakia Mitxel Alonsori (mitxelalonso@gmail.com), Xabier Unanueri (xaunanue@gmail.com) edo Juan Mari Antíari (jmaalberdi@hotmail.es).

Zain gaituzue. Agur eta mila esker!!